



GIPUZKOAKO CAMPUSA

OHARRA: CVa enpresari aurkeztuko diozu Foroan bertan izango duen stand-ean.
NOTA: el CV lo presentarás en el stand que la propia empresa tendrá en el Foro.

Enpresa / Empresa

Leartiker

Lanpostuaren helburua / Objetivo del puesto:

Leartiker Polimeroen Teknologiako lantaldean ikertzaile gisa batzeko pertsona bat bilatzen ari gara, garraio jasangarri teknologikoan, hain zuzen ere. Espezializazio honetan, digitalizazio-tekniken bidez, egitura polimeriko arinak, fidagarriak eta isilak garatuko dituzu, haien jokaera aurreikusiz.

Lantokia / Lugar de trabajo:

Modelizazio eta simulazio aurreratuan ikerlaria

Egin beharreko zereginak edo eginkizunak / Tareas o funciones a realizar:

Hurrengo honetaz arduratuko zara:

- Digitalizazioaren ikerketa-lerroaz, nagusiki material polimerikoen modelizazio aurreratuan eta piezen eta prozesuen egiturazko simulazioan bideratua.
- Elementu finituen eta adimen artifizialaren bitartez digitalizazio-metodologietan ikertzea eta garatzea.
- Nazio eta nazioarteko barneko eta kanpoko I+G+B proiektuen kudeaketa teknikoan eta ekonomikoan laguntzea.
- Ikerketarako aukera berriak identifikatzea eta bilatzea.

Eskatzen diren betekizunak / Requisitos exigidos:

Bilatzen ari garen profila izango zara baldin eta...

Ingeniaritza Mekanikoa, Industrial, matematikak, fisika... eko Gradua edo Masterra baduzu.

Ingelesaren domeinua, ahozkoa eta idatzizkoa baduzu.

Gainera, hurrengo honek positiboki baloratuko da:

Gaiarekin erlazionatutako doktoretza egin izana.

Aurretiko esperientzia profesionala antzeko lanpostuetan izatea.

Python eta Abaqus software-etan esperientzia izatea.

Beste hizkuntza batzuetan ezagutza izatea.

Hala ere, atal hauek betetzen ez badituzu baina Leartikerren garatzeko gogoia baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan!

Eskaintzen dena / Se ofrece:

Guzti honekin hurrengoia lortuko duzu:

OHARRA: CVa enpresari aurkeztuko diozu Foroan bertan izango duen stand-ean.
NOTA: el CV lo presentarás en el stand que la propia empresa tendrá en el Foro.



GIPUZKOAKO CAMPUSA

- Profesionalki eta pertsonalki garatzea, gizartearen etorkizunean aportatuz.
- Merkatuan eskari handia duen punta-puntako jakintza-arlo baten etorkizuneko proiektuan parte hartzea.
- Laborategietan garatzea, azken belaunaldiko ekipoekin.
- Leartikerren bezero diren beste erakunde eta enpresa batzuen errealitatea ezagutzea, hainbat proiektu desberdinetan parte hartuz.
- Gure beharrianetara egokitzeko hasierako formakuntza eta etengabekoa pertsonalizatua zure Banakako Garapen eta Kontribuzio Planaren bitartez Karrera Planarekin lotuta dagoena

Gurekin garatzearen onurak:

- Adiskidetasun-harremanak, familia-sentimendua, hurbiltasuna, konfiantza, aurretiko jarrera eta konpromisoa nagusi diren kulturaren parte izango zara.
- Hainbat balio ezarriko dituzu: inplikazioa, zerbitzura orientatzea, positibismoa, zorroztasun zientifikoa...
- Erakundearen erabakiak hartzen parte hartzen duen talde profesional gazte, proaktibo eta dinamiko bateko kide izango zara.
- Kontratu mugagabea izango duzu astelehenetik ostiralera, ordutegi eta egutegi malguarekin.
- Telelana urteko markoaren % 30era arte egin ahal izango duzu, nahi duzun lekutik.
- Guztiontzako proiektu kooperatibo baten parte izango zara.

OHARRA: CVa enpresari aurkeztuko diozu Foroan bertan izango duen stand-ean.
NOTA: el CV lo presentarás en el stand que la propia empresa tendrá en el Foro.